

ARN-026 Hizlari ezezaguna
Arantza, Nafarroa

Aurkibidea

Biografia

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Arantzan jasotako lekukotza anonimoak.

Zintak

ARN-026

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 2000-01-01
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Audio digitala

Pasarteak

1. Katu jateak

- **Erref:** ARN-026/001

- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta katuak ere harrapatzen zenituzten, ez?
 - Bai, katu jateak egin ditugu orduan! Katu aunitz, bai, hori... panaderia hemen izaten zen, eta panadero aritzen zen mutila, lesakar bat, laguna izaten genuen, eta, katu baldi... gaztea baldin bazen han erretzen genuen, labea, panaderian. Eta, zaharxeagoa baldin bazen, saltsan, gisatua, patatekin eta...
 - Zer, gogorragoa zelako, ez? Igual...
 - Egoten... edukitzen genuen, larrutu eta gizena dena kendu, gustu hura ez izateko, gizena dena nabalarekin kendu eta... bizpahiru egunez edo zintzilika, eta orduan ez zen frigorifikorik izaten, baina, negu aldean eta, pixka bat samurtzeko. Eta gero hemen mediku bat, mediku gazte bat Donostiakoa, eta... hura ere gurekin ibiltzen zen aunitz, eta, gauean egon zen gainera gure etxean, eta, baserriak... eta, baserrietan eta jaten dituela, eta hari ematen zizkieten, katuak, medikuari, bisitara eta joaten zelarik eria ikustera eta... eta, haiek (sic) ere hantxe jaten gurekin... Loidi.

2. Aranibar eta Ibarla

- **Erref:** ARN-026/002
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bai, hori, biak ere... bi baserri hurbilegi egin zirela, haserretuko zirela... lehenbiziko Aranibar egin zuten, baserri zaharrena hori da, hura etxerik zaharrena Arantzako herrian, eta gero Ibarla. Hori, erreka gora joan eta... kristoren biajetan dago. Eta ño! hurbilegi egin zituztela, haserretuko ote ziren bi familiak!

3. Auzolana

- **Erref:** ARN-026/003
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Sei egun izaten zen orduan, plantazioetan eta... gu... mandoa, mandoa izaten zuenak mandoarekin egiten zuen, eta sartzen zuen egun bat, joaten baziren mandoarekin, hiru egun. Baina... ibili ere bai, e! Orduan planta

garraio horrela tokatu naiz ni frankotan. Han ere, Etxalarko gurutzetik honaxeago plantadilla izaten zen. Orain horrela... baita Brunoren etxea eta izaten dena han aparkadero bat, haren gaineko alde... orain ere horrela plantak horrela dira, zera. Eta, harat joan mandoarekin, eta han kargatu, eta beheitixkora... bi biaje, goizean bat eta arratsean bertzea. Eta, hiru egun.

- Eta noiz izaten zen auzolana?

- Hori, plantazioa izaten da negu azkena edo... primabera aldera, plantak, hori, berritzeko.

- Eta ez... norbaitek ez bazuen egiten ordaindu behar zuen...

- Ez dakit orduan ze... zenbat izaten zuen balorea ez dakit, baina gero bertzeak bideetan, bideak, orduan galtzada izaten zen aunitz, eta galtzada izaten ziren trozoak urratzen zirenak, hausten zirenak, eta, haiek berritzen, bat egiten ariko ziren eta bertzeak hari garraio, eta...

4. Ama ezkongabeen haurrak gauez bataiatu

- **Erref:** ARN-026/004
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:03:16. **Bukatu:** 00:03:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Matrimoniotik jaiotzen zirenak bataiatzen ziren eguerdiko hamaiketan, hamaiketako ederra eginez, apaizak eta aitatxi-amatxiak eta... en fin; eta beste batzuk arratsaldean merienda ederra eginez. Eta, ni gaueko hamaiketan edo hamabitan bataiatu ninduten, ja... religión católico hori lotsatu zen ni inozente hura erlijio horren barrenean hartzea egunez, e!

5. Dona dona

- **Erref:** ARN-026/005
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:03:41. **Bukatu:** 00:03:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

“Dona dona
ka ke ku xe
duli, duli frantx
petri, petri, xantx
petri xaramelo
attona Martzelo
purpuru purua
zardin zarren burua”.

(...) hori ere banaketa egiteko: “Tti... minttini manttana!... hori... gauza bera, gaztainen... gauza bera:

“Minttini, manttana, sobera, barbara, betia”.
Eta betea baldin bazenuen... orduan irabazi.

6. Min hartzean haurrak lasaitzeko

- **Erref:** ARN-026/006
- **Iraupena:** 0:00:09. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

“Senda miña
butz urdiña
yuan da zure miña”.

- Eta horrekin lasaitzen da?
- Lasaitzen da haurra, bai. Eta gero... gero trapu batekin tapatu, eta... yasta.

7. Zirtoak

- **Erref:** ARN-026/007
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Jose Mari miri-mari
nun duk andria?
Kutxin gordia.
An ezpada, sun erria.
Ai, urdia!

Jose,
Yan eta ase,
Edan eta lo,
Jose ipurtzulo.

Jose, Jose kitarra
Auntzaren bizarra
Zopa gutti yanta
Gizon kaxkarra.

Martin tin-tin
Errektan sorgin
Tipula eta gatza
Fermiñ ipurdi latza.

8. Nola ligatzen zuten

- **Erref:** ARN-026/008
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:04:33. **Bukatu:** 00:06:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Inauteak ere... inauteak ere kendurik egon ziren puska batean, baina gero hasi ziren berriz, inauteak. Baina... ez zen libre. Eta alkateak deus ez zekien bezala... eta egiten zuen despistatu, hari ez ziotela galdetu permissorik, hori... hori errateko, mozorroak joaten ziren galdetzera, baina hori errateko hark ez zekien bezala deus ere...

- Eta noiz ziren inauteak lehen? Noiz hasten ziren inauteak? Igandean?

- (...) Lehen-lehenago, hemen lehen-lehenago, gerra aitzinetik hasten ziren... igandearekin, eta, gero astelehena eta asteartea... gauetik igandea, astelehena eta asteartea, eta gero hausterre, asteazkena, hausterre... hautsa emateko eguna, eta ja sartzen zen Garizuma, hiru hilabete... ez, berrogei egun. Berrogei egun, ez akordeoirik eta deus ere, eta inon ere orduan musikarik jotzen. Eta neskaxa orduan pila izaten zen hemen, eta, paseatzen, karreteran hotzak hiltzen hor ibiltzen ziren, ostatuan ez ziren sartzen...

- Neskak ez ziren egundaino ostatura sartzen...?

- Ez, ez, ez. (...)

- Orduan, zitak eta non egiten ziren?

- Zitak gero akonpainatzera, baserrietara...

- Lagundu?

- Lagundu, bai. Hori... Aientsa eta Azkilarria, salida izaten edo Xuantenia orduan, eta han oinetakoak aldatu eta egiten zituzten neskek. Gero batzuk Arruzpi aldera eta bertzeak Azkilarriera, eta oinetakoak aldatzen eta mutilak... harat joaten ziren, tragoa ematen zuten Xuantonin, bueno... ostatu bezala, eta, gero neskak abiatzen zirelarik ondotik joan eta, "Faborez".

- Faborez eskatu?

- Faborez eskatu. Eta, ez etorri aunitz: "Ez, ez, ez dut beharrik ez dut... ez dut nahi". Eta, buelta mutilak, eta, ez bazion ezetz erraten, akonpainatzera baserrira... hori, aunitzek ezezkoa.

9. Tobera jotzea

- **Erref:** ARN-026/009
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:09:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bertzea gero... orduan kostunbrea... orain, orain ez da noski egiten, toberak... (...) Tobera jotzea hark... are nobiaren... etxera joaten zen tobera jotzera...

- Eta ez... nobiak ez baldin bazuen nahi tobera jotzea, egin behar zen

zerbait berezia? Elizara eraman behar zuen zerbait?

- Ez bazuen nahi etxera joatea, egiten zuten ardoa partitu plazan. Igande arratsaldean... bailela delarik, joanen ziren bi mutil, garrafoi bat ardo hartu, eta pastelak, eta... horrela, edo gazta eta ogia edo zerbait eta han, partitu, hura seinalea gero etxera ez joateko. Eta, hura ez bazuen ematen, etxera joaten zen.

- Eta, nola abisatzen zen ezkondu behar zela... pareja bat? Elizan esaten zuen apezak eta gero tiroa bota, edo...?

- Apezak, bai... tiratzen zen orduan apeza pulpitutik erraten ari zelarik haien izena, kanpoan Pelle Txiki, kanpoko hori... kubiurtu hori, Pelle Txiki erraten diogu guk, han egoten zen eskopetarekin, eta tiratzen zituen bi tiro pau! pau! Apeza, e... izena erratearekin bat, hori... atea horrela pixka bat ireki eta aditzen, eta haiek zeinu egin, eta orduan, bien izena erratean bina tiro. Pregoi eguna.

- Eta zer egiten zenuten pregoi egunean eta horrela, hemen? Zerbait berezia edo...?

- Bueno, hori... egiten zuten... orain den bezala orduan ere, ezin bodara gonbidatu ez zirenak edo familiakoak edo zaharrak edo, etxean bazkari bat eman. Bertzeak boda... baina boda ere... etxean egiten zen gehiena! Hemen zenbait ere egiten ziren baina e... dirua ere gutxi zen eta, bakoitzak bere etxean egiten zuten... prestatu. Basijak eta hemendik eramaten zituzten gure etxetik aunitz... etxean egiteko, mahaia eta...

10. Ezkontzetan ere ezberdintasunak

- **Erref:** ARN-026/010
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:09:19. **Bukatu:** 00:12:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta bodetan lehen egonen zen diferentzia handia etxe batetik bertzera, ez? Batzuk maizter, beste batzuk...?

- Bai, bazen bai orduan desberdintzen zen, gehiago, etxaldekoa erraten zitzaion jabe zena, etxaldekoa. Eta haiek beti izaten zuten e... edo, fama gehixeago, hobekixeago jan edo... eta boda bat egiteko ere, etxaldekoak beti igual oilaskoa, bodan, eta bertzeak berriz... zikiroa. Zikiroa da... hori... bildotsa baina... hiru lau urtekoa, zikiratua, eta ederrak egiten dira. Eta, haietatik, aitatxi-amatxik egiten zioten erregalu, nobioari, eta ekartzen zituzten zintak, arestian erran dudan inauteetako zinta horiek paraturik zikiroari zintzilika bi aldeetara...

- Adornatuak.

- Bai.

- Hori zer egunetan eramaten zen?

- Hori... ekartzen zen... bi egun lehenago horrela, boda baino...

- Eta bodan zer gehiago bazkaltzen zen? Zein zen menua normalean?

- Orduan, bua! entremesa pilaka... orduan izaten zen lehenbiziko zopa, zopa fideo edo...

- Oilo zopa?

- E... oilo zopa, salda, oilo saldarekin egina. Eta gero garbantzua, garbantzua eta aza, bi fuentetan hori ateratzen zen... saila. Eta gero, zikiroa, haren parte bat gisatua, saltsan, patatekin, eta gero bertze partea,

hoberena, izterrak edo... hura berriz errea, labea errea. Zikiro... printzipio eta... printzipio eta ze... fin ere bai.

- Eta postrea?
- Postrea segun. Baldin bazen... ardiak jezteko denbora, orduan gaztanbera. Eta, bertzela berriz, tarta egiten zen hemen, tarta harro bat, deus ere kremarik eta deus gabe, idor bat, horrela bizkotxoa horrela. Egiten zuten Apezenean aritzen ziren egiten, Apezenekoak. Eta Alfontso Potunenekoak egiten zuen. Eta horrela arro bat, ez zitzaidan niri, ezin nuen irentsi, idorra, kremarik eta deus ez baitzuen. Eta gero... ondotik kafeak, eta agardiente gorria eta agardiente zuria. Orduan ez zen e... botila markakorik, eta gero hasi ziren horiek, Terry, Terry hartzen hasi zen, Osborne, eta Terry bi tipo, malla blanca eta malla amarilla... izaten zen, malla amarillak kategoria gehixeago...

11. Gaztainak nola mantendu

- **Erref:** ARN-026/011
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:12:51. **Bukatu:** 00:13:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta Senberro etxean, zer... egiten zuten ilargiarekin zer bait berezia e... gaztainekin lotuta...
- Bai, hor kuidatzen zuten gaztaina ongi, eta kontzen zioten Ama Birjinak arte, Amabirjinak hemengo bestak. Orduan a... afana, bo izaten zutena, egun batean postrea gaztaina jateko. Hamabortza... abuztuaren hamabortzean, ez baitu aguantatzen horrenbertze, baina, idortu egiten da, ifu... paratzen baduzue solairuan, sikatzen da, peña bezala jartzen da gogorra. Baina, hori han... hori mismaurra erraten zaio gaztaina morkotsa horren hondarra, zaborra, eta hartan nahasia, han denak a... berezi gabe, garbitu gabe, hartan kontzen zioten, eta astean ere... behin edo buelta ematen omen zioten gaztaina hari, segun ilargia nola den. Bai... eta kontzen zioten abuztua arte, bestetan jateko.

12. Gaztaina klaseak eta hagak

- **Erref:** ARN-026/012
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:13:52. **Bukatu:** 00:16:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- A! Bueno... nabaritu pikorretik ere egiten da gutxi goiti-beheiti, e! Baina, bazenekien, bueno, "orain Sanmigela gaztaina ja..." eta bijilatzen zenuen.
- Tenporadaka?
- Bai, eta gero segitu... gaztaina hura, Sanmigela bilduz gero, zuria... zuria ere hasten zen eta, joan behar
- Haga.

- Haga, edo zaluak ibiltzen zirenak, meheak eta luzeak behar zituzten, eta muturra ibiltzen zena. Mugimendua egin eta joaten ziren e... trebea zena, hagitz trebea zena arbola gainean muturreraino joaten zen, eta hark hartzen zuen goiti-beheiti tipi-tapa lehenbiziko haga txikiarekin, bertzeak... berriz... trebe hori, gutxixeago trebe zenak haga handiagoekin beheitiagotik egiten zuen.

- Nik haga ederra beharko nuke, ez?

- Bai, hemen etortzen ziren... hemen etortzen ziren Sunbillatik, Sunbillatik saltzera, a... ez Iparrikorda ez, Ziborkorda. Aita, eta alaba, neska bat, eta mutila. Hiruekin etortzen ziren bizkarrean Sunbillako hori, hemen e... beheko errekan baserria, eta, handik, hagak saltzera Arantzara, eta hor jartzen ziren igande goizean elizako atean.

- Hagak saltzera?

- Hagak saltzera handik...

- Hagak saldu? Arraroa da...

- Bai, hemen... behar duzu material polita harrapatu, e! Eta ez zen hemen horrela izaten, Sunbillak izaten zuen txara edo, gaztaina txara orduan zareak egiteko eta ibiltzen zen, heskaia hori egiteko, eta txara, paretan horiek ibiltzen zituzten, hagak, eta honat saltzera. Eta hemen jendea, igande... mezatik atera, eta probatzen. Bai. Jo! eta: "Bo, hauxe behar dut nik". Eta... eta haiek eskola ere, orduan eskolarik ere ez, eta izaten zuten prezioa hagari beheko izkinan, e... duro bat edo... orduan pezetak, e... hiru pezeta balio bazuen edo... lau, lauko izkinak, edo... hiru koska, bai.

- Prezioak.

- Bai. Honenbertze pezeta, ez, hara bakoitzak haien dendetan eta nola paratzen da prezioa? Eta haiek koskak eginak: "A, honek lau pezeta". Eta: "Honek bi pezeta -e... txikiagoa bada-".

13. Onddoen ipurdia utzi behar da

- **Erref:** ARN-026/013
- **Iraupena:** 0:00:14. **Hasi:** 00:16:38. **Bukatu:** 00:16:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hori erraten dute. Ipurdia utzi behar dela ondoko urtean... handik ondoko urtean edo... gero... handik jaiotzen direla berriz. Hori preziso izaten dela... erraten dute haiek. Guk beti... aita beti garbitu... garbitu egiten genituen guk beti.

14. Onddoak handitzen dira

- **Erref:** ARN-026/014
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:16:52. **Bukatu:** 00:17:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Txikitik handitzen dira. Bakarrik lehenago ere... txikiak ikusi eta bai, bi egunen bururako igual handitzen direla eta... ez dakit ez gero joan eta ez ditugun harrapatzen, edo, ez bertzeek eramaten zituzten handituta, bi egunen buruan joan eta nik ez ditut harrapatukatu.

15. Egunero meza

- **Erref:** ARN-026/015
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:17:07. **Bukatu:** 00:20:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai, e... orduan urrian izaten zen egunero sei t'erdietan meza. Hasten zen txintxirria seietan, neskak izaten ziren joaten zirenak, joan eta hasten ordu erdi bat gelditu gabe tin! tin! tin! tin! tin! tin! tin! tin! tin! tin! Eta gero meza, prozesioa, hemen, kantari...

- Egunero?!

- Egunero.

- (Alaba) Goizeko sei eta erdietan.

- Egunero prozesioa...!

- Bai, "Esnatu zaiteztez" kantatzen zuten...

- Nola?

- "Esnatu zaiteztez,
Gaur egun sentia,
Esnatu zaitezten,
Birjiña Maria"

Bueno, nik... gutxi entenditzen dut, baina zerbait ere horrela zen kantatzen zutena... Eta igandeetan berriz izaten zen lau eta erdietan meza, ehiztari meza.

- Ehiztariena?

- Urri... urrian bai. Eta, akotadoan ginenak han Ekaitzan, apezari eramaten genion hori, meza hori pagatzeko bi uso, bakoitzak.

- A, bai?

- Bai.

- Eta lehenbiziko usoa ez zitzaion ematen apezari? Lehenbiziko usoa... ez? Ehizatzen zenutena...

- Ez, bi uso, nahi zelarik bakoitzak eraman, meza hori goizean emateko lau eta erdietan. Ez dakit meza uztea orduan... joe! Bakizu zer zen?

- Hogeita hiru, bakoitzak bi uso, orduan apezak uso alde ederra bilduko zuen!

- Bai... Eta gero, gero... hori... atera zuten subasta, libre, nahi zuenak hartu. Guk hamar urterako hartu genuen, eta gero hamar urteak pasatu zirelarik subasta libre atera zen, eta, kanpotarrek hartu zuten, baziren hemen... ortze... markesak eta, Marqueses de Astigarraga, eta, gero... famosoak hemen... Irungo ardo almagazeko hori, Artzak, eta... bueno, gipuzkoarrek horrela hartu zuten. Baina, apeza usorik gabe, eta kendu zuen lau eta erdietako meza hori: "Hemen ez bada aitzinetik pagatzen, ez dut mezarik emanen". Gu joan ginen hiru lagun ea meza... ematen zuen,

eta horrela, eta: "Nik behar ditut ehun duro, eta ez badituzue horiek, ehun duro horiek ekartzen, ez da mezarik izanen. Eta bihar ez da mezarik zergatik ez da anuntziatua". Eta, bueno, bueno, nik... ez nuen gehiago kasurik egin. Eta joaten ginen Berara, han ere... fraideak edo istorioak eta hori goizean goiz ematen zuten, eta, harat meza entzun, eta gero Ekaitzara joateko.

- Beraraino joan lehenbiziko?!

- Bai... zer erlijioa, e!

16. Azeriak

- **Erref:** ARN-026/016
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:20:13. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Azeriak? Azeri... artearekin elurra ari denboran eta aritzen zen, artearekin harrapatzen. Elurra egiten zuelarik, arrastoa segitu, eta, zuloan sartzen dira azeriak. Eta egiten zuten zulo hartan pareta egin, zulo bat utzi, eta zuloaren barreneko aldean artea. Eta han harrapatzen zuten, elurrarekin, arrastotik. Gero baziren hemen... erbi ehizan-eta aritzen zirenak zakurrekin, eta haiek bakarren bat hiltzen bazuten, Jerbasio eta horrela... baina horrela arrastotik, lurrean aritzen zen gehiena. Baina haiek ere, azeriak ere tipoak, pentsatzen izanen zuten hura zer... arte hura, haiek harrapatzeko edo zela edo han zerbait bazela sumatzen zuten baina, ez atrebitzen, tardatzen zuten, arrunt goseak akabatuak han pasatu baino lehenago, eta... batzuk egiten zioten harri koskorra edo hartu eta disparatu ere... eta haiek ez zekiten haiek, ez dute bai aditu eta ez ikusi eta probarik egiteko utzi ba... artearena, baina... nola pentsatzen zuten, e! (...)

- Eta gero zer egiten zen azeriekin?

- Azeriekin eskea, etxez etxe azeri-eskea, eta ematen zen. Zergatik azeriak egiten zuen daña, oiloetan, oiloak jan, eta... ardiak, bildotsa partikularki, bildots aunitz... umeak hazten ari direlarik. Eta, gero larrua. Larrua ere... larrutzen zuten, eta saldu.

17. Mendi mutilen bizimodua

- **Erref:** ARN-026/017
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:26:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Egiten genuen goizean jaiki, eta ogi pixka batekin ardo trago bat, ardo trago bat, eta... gu... han orduan mutil aritzen ginen, e! bertze nagusiak izaten genituen. Eta, guk ez genuen ogia, baba, bertzerik ez genuen izaten, ogia eta baba eta litro bat ardo, egun guztirako litro bat ardo izaten genuen.

- Eta egunero gauza bera? Baba, eta ogia eta...

- Egunero, egunero, egun... egunero, eta, baba... baben ondotik zopa, zopa jaten genuen aunitzetan.

- (Emaztea) Lehenbiziko baba eta gero zopa!

- Aurrenik baba eta gero... gero zopa.

- Eta iluntzean lanean gelditu.

- Eta, iluntzean lanean gelditu, eta, berriz gauza bada eso, segun, batzuetan nagusi batzuekin igual gauerako garbantzua izaten genuen; garbantzua han eta hura... hura ona. (...)

- (Emaztea) Zergatik lehenbiziko baba eta gero zopa? Bigarren platerean zopa.

- Bai, lehenik zopa janez gero, klaro, baba jateko gogo gutxiago izanen zelako.

- (Emaztea) Horregatik hori, bere... bere sekretua du horrek!

- (...) Eta gero, gero gainera horretarako goizean, erranen dizuet gero... zera, ogia eta ardua eta. Guhaurek batzuetan eramaten genituen sardina zaharrak, eta sardina zaharrak eramaten genituenean, sardina erdika bat, sardina erdika bat jaten genuen desaiunatzeko, eta bertze erdia bertze eguneko altxatu, bai. Eta holaxe.

- Hemendik... hemendik jende aunitz joaten zen, mendi mutil? Bai...

- Bai, bai, hemendik... hemendik... bueno, gero gehiago hor izan da bai, denbora bat Frantziara hasi zenean, gehiago irabazten zen baina... joaten ginen, joaten ginen bastante, hemendik Iratira. Iratin, hemen sos banako batzuk irabazi ahala gastatu egiten zen eta, han sos batzuk sobratu egiten ziren, badakizu, han ez ginen bajatzen inorat ere!

- Han, gero... hori da, gaua-eta non pasatzen zenuten?

- Han? txabolan!

- (Emaztea) Asteburuak ere bai.

- E?

- Txabolan?

- Txabolan. Eta, gero... igande eguna ailegatzen zenean guhaurek arropak garbitu, guhaurek... guhaurek arropak garbitzen genituen... beti; uda... uda... bueno, uda bat edo izan genuen bai, nagusiak han beheiti herrira hasi ziren bi... bidaltzen zituztela eta, nik ere bidali behar nituela eta uda batean horrela, baina gain... kasik errateko moduan beti, beti guhaurek. Batzuetan zortzitik egiten genituen, bertze batzuetan hamabostetik, segun, segun. (...)

- Eta igandeetan ere baba jaten zenuten?

- E?

- Igandeetan ere baba?

- Igandeetan diferentzia pixka bat meriendatzeko egiten genuen igual... denak unitzen baginen, igual bildots bat erosi, zela edo... igande guztiz ez, igande guztiz ez genuen egiten baina... bai, merienda pixka baten diferentzia egiten genuen jeneralean, hori bai. Eta bertze batzuetan igual bakailaoa ekarrarazi, eta bakailaoa eta tomatearekin-eta... baina, hura... hura izaten genuen guhauren kontura, hura... hura ez zigun nagusiak ematen, hura... hura izaten genuen... guhauren kontura egiten genuen.

18. Bidaiak

- **Erref:** ARN-026/018
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:26:11. **Bukatu:** 00:29:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai, biajeak nora egiten zituen?

- Horrek hemen, gero Igantziko jendea, Berako jendea ere bai, Beran ere hartzen zuen aunitz, astelehenetan eta... hori, larunbatetan buelta behinik behin aunitz, lana zuen jende aunitz joaten zen, Berako jende puska joaten zen. Eta gero Irun eta Donostiara. Donostian la plaza Sarriegi-n egiten zuen, han parte zaharrean, la plaza Sarriegi, badakizu? Han genuen parada guk, Berak... horiek, Lesaka eta Bera, horiek txa... alternando egiten zuten, Jexux eta hori, eta bertzea... Lesakakoa, nola zen hura? Horiek biek egiten zuten txandaka, batean egun batean eta... bat Donostiara egun batean eta bertzean Iruñera, eta gero hurrengo egunean aldrebes, haiek joaten ziren bi lekuetara. Eta gero bertzeak, ez naiz oroitzen Asteasukoak. Gu hiru autobus bakarrak gelditzen ginen han, hiru linea bakarrak, bai.

- Eta horiek e... astelehen eta larunbatetan Donostiara? Bueno, Donostiatik honat edo Donostiara...

- Astelehenetan hemendik zazpietan atera, eta han zortzi eta erdiak bederatziak alderako hara ailegatu, mantso-mantso. Eta gero... gero Errenteriara ere bai, Errenterian ere gelditu, eta gero zareak, bati, eta paketeak, eta... horrela denei, hori, zu, esto, igual esperoan, gaixoenak Olaokordako... esperoan beti hemendik zarea bidalia, eta, horiek ere bai, Joxe Ramonen... esto... aitatzik bidaltzen zion, nik ez dakit, hark hemendik arropa zikina bidaltzen ote zion, eta gero handik bidaltzen zion tente demonio beti itxia zarea, hango... hau ateratzen zen han, Joxe Ramonen aita. Rektoago aterako zen, gu autobusean ailegatu orduko hantxe zen hura. Eta bueltan ekartzen zuen hori, puntual demonio, larunbatetan, bai. Eta, gero, pues horrela, gero nik ez dakit hemendik zer bidaltzen izanen zen, ilarra, eta oilo, eta oilasko, eta horrela bidaltzen izanen zen, eta gero handik zerbait ere bidaltzen zuten bueltan ere, eta horrela, pakete.... paketeria eta horrela.

- Eta Igantzira sartzean zer erraten zioten zure aitari?

- Igande... a! Igantzira sartzen zen... lehenbiziko ez zen sartzen, eta gero kontsegitu zuten haiek asteazkenetan bakarrik. Aitak erran zuen asteazkena egun... aldiro ez zela sartuko, zertaz orain bada modua, baina orduan zen hagitz... zera, eta izutzen zen jendea. Haratakoan ez, haratakoan ja... aisago, baina goitik beheitikoan egiten zuen sentsazioa joan behar zenuela goitik beheiti, itsusia zen.

- Kurba hura...

- Kurba txarra...

- Ba kurba hura, zuek ezagutu duzuen kurba hura, e! Gero kendu... hura kendu zen... orduan aitak egin behar zuen: "Bueno, ni sartuko naiz, baina... egizu kurba hori!", orduan hura egin behar zuen, Diputazioari galdetu eta hura... gainera lurra zen dena, ez zuen harririk eta deus horrek, hori dena lurra zen, baina hura eta: "Ai, Pedro!", eta gure aita koleratzen zen, klaro, beretzat ere autobusari deus ere pasa e... beti ongi edukitzen zuen, bai, gure aitak autobusa astelehena, asteazkena eta larunbata izaten zituen. Eta astearte eta... ortzeguna eta ortziralea pasatzen zituen beti kuidatzen, betik hori... esto... autobusa kuidatzen, zer duen, zerbait ere falta baldin badu... beti berak moldatzen zuen. Eta gero hamabostetik izaten zen Lesakara... feria, merkatua. Harat bai honela jendea, pilan jendea, zutik eta guzti. Hura izaten genuen negozioarik hoberena, Lesakakoa, Lesakako bidaia, hura gehixeago izan bazen! Lesakako bidaia.

19. Arrainarekin gertatua

- **Erref:** ARN-026/019
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:29:39. **Bukatu:** 00:30:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta arraina, autobusean ekartzen zuen zure aitak?
- A, bai! Arraina. Joaten zen... horrat... portura, gure aita, eta han ikusten bazuen horrela... ailegatu berria, sardina edo antxoa, eta... hori ere bai, berdela ez, bertzea...
- Txitxarroa.
- Txitxarroa. Txitxarroa eta horrela, hori, merluza eta holakoak milagro, horrela, eta horiek, ja honarako garestixkoak ziren. Horrela, tokatzen bazen tartean horrela, ekartzen zuen, bai. Baina, jeneralean hori, antxoa, sardina eta... txitxarroa eta horrela. Eta gero hura ailegatzen zenean: "Hala, badugu sardina!", eta gu hortxe herri guztitik: "Bueno, sardina!", eta denak platerekin han. Joaten zen istantean hori. Jendeak erosten zuen, e! fresko-freskoa.
- Zuek saltzen zenuten? Edo tio Jenarok?
- Bai, bai ez, ez, guk, guk. A! Eta Jenarok egiten zuen... hura larunbatetan joaten zen, eta hark ere ekartzen zuen larunbatetan, bai, hark larunbatetan ekartzen zuen eta... plantak ere bai, aza plantak eta... porru, eta plantak, eta... hark puska ekartzen zuen eta hor elizako... Errontenko atea... edo zera baita, hor jartzen zen, esto... pareta horretan, eta, han saltzen zituen horrek. Eta horrek ere egiten zuen, horrek ere enkargo eta... Irundik aunitz egiten zuen.

20. Igandeak

- **Erref:** ARN-026/020
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:30:57. **Bukatu:** 00:33:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Lehen igandeetan izaten zen hemen akordeoia, ez?
- Bai...
- Aspaldi bidi... igandero...
- Igandero... bai, eta jendea biltzen zen... e... kanpotarrak ere etortzen ziren franko igual arratsaldean, neskaren bat ezagutzen baldin bazuten edo... nobioz edo hasiak igual, eta... etortzen ziren. Eta beti izaten baitzen, hemen gero Arantzan akordionista aunitz zen, beti bazen akordeoia, bat ez bada bertzea. Bai, Ebarixto eta, gero hau Gregorio (...), gero Jabier Errota bertze kordionista, eta, bertzea Itxaberrikordan Fermin, eta... Juakin... Juakiñ hau...
- Eta hori ze izaten zen gorapean?
- Plazan... euria baldin bazen gorapean. Baina gorapea eskas izaten zen, jendea aunitz biltzen zen...

- Eta neskak mutilekin dantzan?
 - Eta apezka? Apezka zer erraten zuten?
 - Kastigatu?
 - Bai, Hijas de María, izaten zen Hijas de Mari-koak, oraindik ere badira... Hijas de Mari-koak. Hijas de María erraten diot nik ere... ez bada esposatzen... zuek Hijas de María zarete.
 Eta, bertzeak luistarrak berriz, mutilak... gu hor ibiltzen ginen medaila zuri edo... zuria eta azula, medaila handi bat, horrela paratu eta, hori... igandero komulgatzera.
 - A, bai?
 - Hantxe. Eta ale... hij... hori... berriz Hijas de Mari-koak, eta, dantzan ikusten baldin bazuen apezka neska... mutilekin, botatzen zuen Hijas de Ma(r)i-tik...
 - Eta mutilak?
 - Eta... Mutilak? Ez dut uste hainbertze... baina, neska ez bazen ibiltzen, mutila ez zen ibiliko... (...).
 - Eta hori zer, neskak esposatu artekoan hor egoten ziren edo zer?
 - Bai. Gero bertze ordena izaten zuten, esposatuz gero bertze ordena da, hori... Hijas de Mari-koak... solterak...

21. Herriko bestak

- **Erref:** ARN-026/021
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:33:14. **Bukatu:** 00:36:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta, bestak egun pila bat egiten zen hemen orduan. E... beti, orain ere... musikeroak ere... beti, egunero diferente dira omen... orduan errenteriarak etorri ziren, hogeita lau-bortz urte edo, beti kuadrilla bera, Errenteriko bandarenak.
 - Eta zenbat egun besta?
 - Orduan herriak pagatu izanen zituen... lau egun, uste dut pagatzen zituen herriak. Gero amerikanoren bat edo etortzen bazen, a... laugarren egunean ja akabatu bezala, eta, ja musikaren akabailan porrrrrrrro! Alfontso, danborra, bandoa jotzen eta: "Adios! Badiagu zerbait ere! Herri... norbaitek pagatu edo izanen duk egunen bat". Eta: "Bihar musika izanen dela!" - Alfontso, oihua-. Eta: "Oeee! ¡Bieeen!"-Denak oihuka orduan, bailean ari den tokian- "¡Bieen! ¡Bieen!". Eta, gero hurrengo egunean berriz igual bandeja pasatu, haiei, eta, berriz ere, bandoa: "Bihar musika izanen dela!" -Alfontso- porrrrrrrr! - danborra jotzen zuen. Eta, hala igual sei-zazpi egun pasa horrela.
 - Eta lehen zer izaten zen bestetan horrela, orain... orain bezala ez zen... ez ziren izanen...? Musika eta gehiago zer izaten zen?
 - Bueno... zortzikoa eta egiten ziren orduan. Zortzikoa... mutilak, baina mutil eginak ob... sasoikoak, eta, horrela, hala behar du.
 - Haurrak ez...
 - (...)
 - Eta gehiago zer izaten zen? Zortzikoa, musika eta horrela... zerbait ere...?
 - Bertsolariak ere bai.
 - Bertsolariak.

- Bertsolariak... orduan, honat e... urte sailean etorri izan ziren Baserri, famosoa, Uztarpide... Uztarpide horiek biak etorri ziren onak, e! Jartzen ziren bat Lopenean igual, eta bertzea Andresengo leihoan...

- Leihotik leihora?

- Leihotik leihora, jendea azpian dena aditzen... edo Potuenean edo horietan egiten zen, balkoian, eta han jarri, batetik bertzera. Bertsolari onak ziren horiek.

22. Mozorroak

- **Erref:** ARN-026/022
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:36:12. **Bukatu:** 00:39:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta mozorroena, hori nola da? Mozorro zuria eta beltza bada, ez?

- Bai, mozorro zuriak ziren e... eskean ibiltzen zirenak etxeetan. Horiek ibiltzen ziren orduan dena oinez, orain kotxeekin joaten dira... auzoetara joaten ziren e... kuadrilla, ba... mozorro mutila ere aunitz izaten baitzen orduan. Bai, herria... hemen ere... bazen abitantia... oraingo doblea kasik, Arantza, eta umea egiten baitzen, hamar-hamabi ume edozein etxetan zen, baserrietan eta bono, herrian ere bai. Eta, mozorro izaten zen pila. Hara joaten ziren bi zaretero, auzoko etxera zare handiekin, haiek zareteroak erraten zioten, bertzeak biltzen joan eta haiek eramaten zuten be... berriz bidea jenerala. Eta, haiei arrautzak eta biltzen zirenak haiei entregatu, haiek kargatu zare handiekin...

- Zer biltzen zen? Arrautza?

- Arrautza, hemen arrautza, hemen... hor Beran eta horietan xingarra horrela (...).

- Eta zerbait ere oihua edo kantua edo zerbait ere egiten zuten mozorroek? Etxeetan? Joaten zirelarik, edo...?

- "Puska- puska". Mozorroek ez zuten e... "puska-puska" oihua orduan, bertzela izaten zen Santa Agedan eta horietan kantak eta, baina...

- Eta mozorro beltzak?

- Mozorro beltza berriz, ez zen e... egiten, gu, mutil koskorak eta ginelarik, ja gu... ine, gu hasi ginen gero lehenbiziko, horiek gerra aitzinean bai, baina gero galarazi baitziren...

- Eta akabo...

- Eta, gero gu hasi ginen, lehenbiziko mozorro beltzak ateratzen. Hemen Xapatatta orduan, e... arestian erran dut panadero egoten zena... Joakin, hura laguna genuen, eta, Xapatattan zerriak eta izaten zituzten, Silberioak, Sarobe horrek, eta, hortik atera ginen, baxe... bat joan zen Lesakara, eroatera, orain hila da, Josetxo Xuantoinkoa, eta ekarri zituen maskarak han erosita... eta, jantzi ginen. Eta, zortzikoa, orduan herri guztiari buelta ematen baitzen, lehenbiziko plazan ibili eta gero elizako atari horretara, harunzko atari goiti, hemen gure etxe azpia barrena, eta zortzikoan hondarreko muturra ailegatu zelarik, atera ginen gu... Maria! Ze inork ez zuen pentsatzen... hemengoak: "Ai! Ei!" Eta buila, eta gu zortzikoan, segi haien ondotik. Baina gero, han ordena ez dakit, almirante... hasi zen, e... alkateak erran izanen zion edo erretiratzeko edo, eta mozorro zuriek orduan mozorro beltzari, guri, maskara kentzen... batari edo bertzeari

kendu ere egin zioten... niri ez zidaten kendu, nik txistua banuen, eskutan, eta, tiratzen nien kolpea eta... eta eskapatu nintzen. Baina, gero hasi zen diskusioa, gehien alde nahi jendea ikusi, eta, biharamunean jantzi ziren denak, almiranteak eta...

- Denak.

- Denak.

23. Inauterietarako arropa

- **Erref:** ARN-026/023
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:39:36. **Bukatu:** 00:40:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Inauteetarako arropa kontatzen zuen bai hark, nola... janzten ziren inauteetako arropak, mozorroak janzten zirela denak, mozorroak, galtzak, alde bat gorria eta bertzea urdina, eta bertzea edo... gurutz... gurutzean, gero bertzea gorria eta bertzea... ber... bi koloretakoak.

- Orduan zer? ezkerreko hankaren aurrean kolore bat eta atzean beste bat eta hemen [eskuineko hankan] aldrebes.

- Hor aldrebes, bai, guruz... gurutzatuak.

- Eta atorra eta zapatak-eta?

- Hori, atorra... atorra ez dakit atorra zer koloretakoa izaten zuten. Galtza hori erraten zuen, oraindik... iloba horietakoren bati egin zion noizbait antzerkiren bat egin behar zutela edo... Klemenek eta horiek, eta... egin zizkion lehengo inautetako arropa bezalakoekin alde bat ur... zuria eta bertzea berdea, eta, horrela denak, mutil gazteak denak janzten zirela inauterietan.

- Eta zapela-eta eramaten zuten igual? Edo...

- Zapela... zapela gorria, seguru. Zapela gorria eta alkandora... ez dakit, atorra gorria ez bazuten eramaten... bai! Horiek nor edo nor oraindik izanen da Arantzan igual e... nik baino hobekiago dakiena gauza horien berri.

24. Eguberriak

- **Erref:** ARN-026/024
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:40:44. **Bukatu:** 00:43:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta Urtezaharrean zer kantatzen zenuten? Edo z... n... egiten zen eskea, edo zer egiten zen?

- Eskea orduan ere, baina kantatzen dute Urte Salbe...

“Urte Salbe

Ongi etorri

Agur Jainkuak (d)iguela.
Agur Jainkuak
(d)iguela nola,
egun handi bat dekarrran.”

Hori, tira bertsoa...

- Dena bertsoak.

- Eta, bertsoa lehenbiziko poliki, baina mantso samar atea irekitzen bazuten, orduan has... zitzaion bertsolari hura... pikatzen.

- Atakutzen, ez?

- Bai, (...) aunitz etxetan sartzen zen orduan, baserrietan, herrian ez baina baserrietan... eta... izaten ziren igual... gaztaina erreare zate bat e... gaztaina zarea, izaten zen gaztainentzat espresa zarea. Eta hura bete hantxe, trapu batekin tapatu bero-beroak, eta pozik jaten ziren gaztaina eta ardoa. Eta, bertze etxean aterako zituzten gazta eta ogia, eta bertze etxean zerria hil berri samarra edo, txistorra eta ogia, eta...

- Eta zertaz egiten zen bi egunez?

- Gero, baileare jo eta kean, hemen arestian erran dudana orduan izaten zen aunitz, eta neska aunitz eta baserrietan prest egoten ziren, maja jantziak, eta, dantzan ibiltzeko baserrietan.

Bai, gero etxeko neskak eta igual auzokoak bata bertze etxeren batean baka... bat baldin bazen edo joaten zen bertze baten etxera eta, han akordeoia jotzen zuten eta, dantzan, han ez zuen apezak ikusten... dantzan.

- Eta hori nola ibiltzen zen, auzo bakoitzean kuadrilla diferentea? edo nola zen hori?

- Bai. Bai, e... arestian erran duguna e... orduan bereizten zen, gu herriko kuadrilla, dena herritarrek, eta Azkilarrekoak igual...

- Han.

- Bakoitza bere auzoan.

- Ez, ez, e... ibiltzen zen, denean, bueno, bi auzo horrela egiten ziren. Baina ez zen behinik behin... bue, bakoitzak bere auzoan, nola zuen andregaiare edo horrela igual izaten zen eta...

- Interesak...

- Bai...

- Errege bezperan...

- Gauza bera, igual.

- Eta zergatik bi egunetan?

- Bua! Orduantxe ibiltzeagatik...

25. Ostatuak

- **Erref:** ARN-026/025
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:43:21. **Bukatu:** 00:47:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Orduan, etxeetan gaizki jan, miseria. Ilar gorria baldin bazen, bazter txarra baldin bazen ilar gorria ere akabatzen zen agudo... bazter fuertexeagoak egiten zuen, biltzen zuen gehiago, eta, (...) orduan, igandeetan eta mezara etortzen baitzen dena, eta, gizonek egiten zuten

besta aunitz, lehenbiziko anisean hasi, anis pila bat goizean. Eta, gero ja kontrola galdua, eta bueno, bazkaltzen gelditzen ziren... Bazkaltzen gelditzen zen orduan, eta usaina eta ostatuan beti gehixeago, janarena, eta, harekin, usain harekin eta behinik behin animoa... besta gehiago egiten zen orduan besta erraten zen, baina ez zen besta hura. Gaizki... gaizki. Baina bat anisean hasi eta eguna pasatu hemen eta...

- Hori aste hondarretan?

- Igandea.

- Igandea.

- Orduan ez zen e... larunbata ez zen besta izaten, deus ere, igandea bakarra.

- Eta astez, ostatuan norbait ere ibiltzen zen edo...?

- Bueno bai... e... orduan aritzen zen musean aunitz, egunero, musean aritzen zirenak baziren hemen herrikoak, kuadrilla, eta, baserritarrek ere baziren egunero etortzen zirenak, musean aritzeko, herrira, oinez. Baina musean, ardo jokoan. A... botila hura: "Bueno, litro bat ardo jokatu diagu". Eta, baso bat, eta botila ardo paratzen zen, eta baso batetik edaten zuten denek, igual e... bost-sei partida jokatu zituzten eta beti baso bat, kostunbre hura hala... eta, tragoa hori, ba... batek partitu zuen, bueno, hark trago egin, pixka bat gelditzen bazen mahai azpira bota. Kostunbrea orduan hala zen, ez zen...

- (Alaba) Zer usaina ardoarena ostatuan...

- Brru! Zer, hondarra mahai azpira botatzen zen?

- Bai... ez bazuen akabatzen, mahai azpira bota.

- (Alaba) Eta beti-beti akabatzen zuten mus partida, edo...? (...)

- A, bueno, mus partidan tokatzen ziren haserretzeak, haserretu musean ari delarik igual, zerbaitengatik, tantoengatik edo, eta ddipi! eta ddapa! joka segituan. (...) Bueno, orduan, bertzela ere igandero joka aritzen ziren hemen.

- Igandero?

- Igandero baziren jokalaria. Ez zen orduan separazio handia izaten zen herrian, e! Herritarrek herritarrekin, Aienstarrek beren grupoa, Azkilarrekoak beren grupoa, eta Iguzkaldia eta Orralar igual... denak separatuak. Ez zen nahasten orain bezala, (...) igual lehengo... aitzineko igandean zerbait errana eta horrela, eta hurrengo iganderako prestatuak, joka aritzeko... eta hemen zipi! eta zapa! joka aritu bai, bai.

- Bai, e!

- Eta orduan kanpokoekin gehiago, ez? Herritarren artean horrela...? Kanpokoekin?

- Bai, gainera... ez, ez zen orduan, ez baitzen deus ere, e... kotxerik-eta ez zen, eta orduan e... erraizen (?) zen bertan dena, bakoitzak bere herrian.

- Baina lesakarren bat edo igantziarren bat etorritz gero...?

- Harrika...

- Bueno, bue... bestetan eta... orduan etortzen zen, bestetan egun bat edo izaten zen, nola etortzen zen oinez... bigarren eguna izaten da gehienetan. Eta orduan, e... harrika fama Arantzak, harrikalariak, baina egiten zuten etorri e... igantziarrak edo lesakarrak edo etortzen zirenak e... kuadrilla, eta bakarren bat neskaxetara, haietatik, eta egiten zioten bere kuadrillakoek, ba... bazterrera joan eta handik harrika eman, eta gero arantzarrak, jode, fama... arantzarrak harrika... bai.

26. Luzean

- **Erref:** ARN-026/026
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:47:42. **Bukatu:** 00:50:54

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai, hori ja ni... zerbait ere horrela oroitzen naiz zerbait, baina gelditu zen, orduan, bai... bakarrik behinik behin gure etxean pilotak eta katxarroak izaten ziren. Pilota pila bat bazen zaku batean, eta, gu mutiko koskorak urratu genituen denak, honako nak... barrengo bala edo... erraten genion hura izaten zuten, eta hura ateratzen aritzen ginen. Baina hemen luzean bai, bakarrik gero galarazi edo ez dakit ibil... xehatzen gero pertsianak eta horiek, abisua ematen bazuten amerikanoek eta, gero, hemengo famatuxkoenak herrikoak: medikua, botikaria eta... horiek, k... amerikano eta horiek kuadrilla egiten zutena, horiek aritzen izanen ziren. Eta, gero leihoak, leihoak xehatzen eta, ja galarazi zuten. Botarria han izaten zen Kaltxiko izkinan, botea emateko, han botea eman eta, hala, sakean. Eta gero hura ere, hura ni oroitzen naiz xehatu zutelarik.

- Eta botarri horrek bazuen gainean pilotak uzteko leku bat, ez?

- Bai, horrek zuen, horrela, ebaki koskor bat hura berdina, eta han ebaki koskorra eta han pilotak. Eta gero, botea emateko berriz, kaidarekin, ez, zelaia ez, hola, kara. Botea eta, txa!

- (Alaba) Eta pilotan hemen lehenago aritzen ziren hori... plazan, etxe horren kontra...

- Bai, plaza... librea zen, ez zen... ezker paretarik gabea! Etxeerri zen frontisa, pareta.

- (Alab) Baina jokatzeko zuten hirunaka, ez? Hiruno...

- Bai, aunitz... aunitzetan bai, hirunaka.

- Hiru hiruren kontra.

- Bai. Sei. Nola ez zuen ezker paretarik, zagero bat eta aitzinean bi.

- Baina aunitz aritzen zen jendea lehenago pilotan hemen... Bo! Txanda ezin harrapatuz... plazan. Plaza eta arkupea. Eta bertzea izaten zen arkupean aritzen zirena trinketea. Hori nire denboran aritzen ziren hemen baziren onak, orduan Leandro Txunkua eta... Alejo bat Orunean, eta horiek ere... aitzineko sarearen ondoan egoten zirenak, horiei airea hartzen. Eta horrela izaten ziren, bertzeak rebotean. A trinketea s... paratzen zen sare bat, sare bat e... soka bat paratu eta han izaten zuen sarea goi... sarea goitik beheiti hark, zintzilika. Eta, gero pilota izaten zen handia, baloiaren adinekoa ia, txikixeago baina, horrela, eta...

- (Alaba) Orain boleibola bezala horrela... (...)

- Eta zenbat jende aritzen zen hor?

- Horretan lau, bi aldeetatik bina.

27. Sorgina tximiniatik beheiti

- **Erref:** ARN-026/027
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:50:54. **Bukatu:** 00:52:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Aranibarren, e... laminak, aunitz atakatzen omen zituzten eta... edo

sorginek, eta, aritzen omen ziren emakumeak lihoa, haria egiten. Eta haria liho horrekin pues leun-leun-leun-leuna, hari polita egiten omen zuten emakume horiek, eta, egunero etortzen omen zitzaien tximiniatik beheiti, eta erraten omen zion:

- Ekarran gantza!

Gantza, zopa, seboarekin egina.

- Ekarran gantza!

Eta, emakumeak ikaraturik beti. Gizon batek erran dio:

- Lasai, nik arreglatuko dut hori. Bai, zuek ez etorri.

Bera jarri da, suaren ondoan, eta paratu du zartagin handi batean olio erretzen. Eta, han zegoen olio hori pil-pil-pil-pil-pil-pil-pil, eta er...

- Ekarran gantza!

Eta:

- Oi! Atzo pirri-pirri eta gaur pordoka-pordoka?

Klaro, gizon horrek ez baitzuen [emakumeek] bezala egiten haria.

- Karran gantza!

Eta:

- Gantza behar dun?

Da! tiratu dio zartagin olio hori eta kiskali dio mutur guztia. Eta ai! ai! ai! garrasika joan da. Eta bertzeak atera zaizkio zer pasatzen den, eta:

- Zer pasatu zain? Zer pasatzen?

Eta:

- Neronek nire buru! Neronek ni... (...)

- Ba! Heuk hire buruari egin baldin badion, izorratzea aski dun!

28. Belea sartu ahoan

- **Erref:** ARN-026/028
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:52:15. **Bukatu:** 00:53:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hori, amerikano bat. Eta bere semeak kontatzen zuen, aita kontatua, aita zen amerikanoa, eta, Ameriketara urte mordoxka bat eginda etorri da eta, lehenago hemen ezkondu zen, eta oraindik soltero zegoelarik joaten ziren Doneztebera merkatura. Eta Sunbillan generalmente afari mokadu bat egin, musean pixka bat ari eta goiz aldera etxera. Eta, bidean heldu direlarik, gauerdia aldera edo horrela eta erran dio:

- Hi, motel. Ño! Nik hementxe kuluxka bat egin behar diat, lo pixka bat egin behar diat.

- Motel! Motel! Alde egin ezak hemendik! Hemen zer egin behar duk hik lo?!

Eta:

- Bai, bai, bai, nik nahita ere egin behar diat lo.

- Bo, bo, bo! Alde egin ezak, Jaungoikoaren izenean! Orain hemen lo?

Eta:

- Bai, bai, bai, nik lo egin behar diat.

Bidean bazterreko aldera aldatu da, jarri da hortzaz gora, eta bertzea fumatzailea zen hori, amerikano hori, horrek zigarroa piztu du, eta, etzanda jarri den denboran ru! atera zaio bele beltz bat bezala ahotik. Eta, handik minutu batzuetara etorri eta ra! sartu zaio berriz, eta, edarkar bat

ederra egin eta:

- Bueno, goazen motel, a zer kuluxka goxoa egin dudan!

Eta bertzea harritua, sorprenditua edo ikaratua, ikusten duen denboran akontezimentu hura.

29. Katu beltza sorgina zen

- **Erref:** ARN-026/029
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:53:28. **Bukatu:** 00:54:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Joxepantoni zuen horrek izena, emakume hark, eta horren senarrak Antonio, biak ezagutu nituen nik (...). Eta, mutiko hori juergista, gaztea, eta, orduan dena oinez zen, eta, neska za... edo... izeba zahar horrek erraten omen zion:

- E! Egunen batean ikusiko duk! E! Egunen batean ikusiko duk ze... zer estualdia eman behar duan!

Eta:

- Bai! -mutikoak- Bue!

Eta, berriz ere hura atso horrek eta, egun batean herritik bakar-bakarra badoa goizaldera, ordu batak edo biak aldera horrela, eta, harpe baten azpitik atera zaio katu beltz bat mar-mar! eta mar! eta marruka katu beltz bat. Garrote bat horrek eskutan, ez makila hark, garrote bat. Ja! jo du garrotearekin, eta: "Jo nazak berriz!" eta "jo nazak berriz!".

Eta ez, mutilak ez zuen jotzen, eta, mutila joan da etxera. Eta juerga egin goizean, zer da eta izeba, bertze ohean. Eta haren izeba, neska... atso zahar hori, sorgin hori. Hark makilarekin jo eta izterrean kristoren paliza emana, mainguka.

30. Berari gertatua

- **Erref:** ARN-026/030
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:54:32. **Bukatu:** 00:57:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hemezortzi urte nituen nik. Eta gainera, egun seinalatua, hura, veinticuatro de agosto San... Santo Domingo? Bai, el veinticuatro de agosto zen hura. El año... cuarenta y siete, cuarenta y ocho... cuarenta y siete. Orduantxe egin zituen Goizuetan ikaragarritzko inundazioak, hartu Leitzatik eta Hernanira bitarte, ikaragarritzko inundazioak. Gero lanean asko aritu ginen gu han. Eta, gau horretan, egun horretan, pues, goiz guztian beti trumoika ari zuen... hor... zera aldetik, sur aldetik, Goizueta aldetik hortik beti trumoika ari zuen. Eta hemen beltz-beltz-beltz-beltza zegoen. Eta hemen azal...tze zuen arratsaldeko bostak aldean horrela euria baina, euria... mantsalba, ikaragarritzko erauntsiak hasi zituen. Bueno, joan ginen

herrira eta gau guztia erauntsia ari zuen, eta, esperatu genuen taberna batean ea atertzen ote zuen horrela, eta bai, ja gauean... euria atertu zuen, eta, orduan dena artoa egiten baitzen, eta gure etxerako bidea arto artakan zen, hura, gainetik artoa, eta azpitik ere bai, bide eder bat, hau bezalako... eta hementxu bide bat. Horrela, eta, bide hori barrena banindoan eta ez zen haizerik, ez zuen zigarro bat bera ere mugituko, haizerik ez zegoen arrastorik ere. Eta, ni... nindoan bide horren gaineko aldean, bi bat e... metrora edo horrela, arto artaka barrena, ikaragarritzko haizea. Brrrababa! Artoa bi aldeetara dena mugitzen zuelarik. Mekaguen! Kezka puta egin nindoan eta, etxearen azpiko aldean, etxearen ondo-ondoan, hurrak, adar batzuk, eta hurren azpian belardi bat. Eta belardi horretan asto gris bat ederra. "Hau gure astoa duk" -nik, guk ere astoa grisa genuen- "hau gure astoa duk". Eta ikusten nuen nola behetik gora nindoalarik, hemendik... bueno, hogeita hamar metrora bezala horrela. Hurbildu nintzen bertara, ailegatu nintzen, eta, joan eta atakako atea, hasten naiz atakako atea eta... tas! Astoa desagareztuta gelditu zitzaidan. Txaketa, soinean nuena, edo... hamabost metroren barrenean dena ura bezala busti nuen izerdiarekin. Jo atea, eta, atera nuen sarraitatik. (...) Ni hagitz pertsegitua izan naiz e... gauez sorginekin, bat bizi zen bitarte, sekulan ez dut erranen nor. Hura hil zen denboran, ja nire aluzinazioneak edo... zerak joan ziren.

31. Laminak

- **Erref:** ARN-026/031
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:57:11. **Bukatu:** 00:59:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Nire amonaren... ama, eta denbora haietan ez zen... edaririk, ez zen karreterarik. Eta, ekartzen zuten anisa Goizuetatik garrafoi txiki, bueno... barrika txiki bat, gero baserrian paratu garrafoi txiki batean, ekartzen zuten herriko dendara kontrabandoan. Orduan baziren siseroak herrietan. Eta, gure amona hori heldu zen elurra eta horma eta galtzada malda-malda. Eta galtzada hori beheiti, irristaka, zes... zare hori hartu herrestan eta poliki-poliki, eta, maldan. Bertze aldetik eguzkitan, honako neska eder batzuk ilea orrazten, rubia-rubia-rubiak, urrezko bandeja, orraziak, orratzak... denak urrezkoak. Eta, begira, begira. Eta bera harrituta, eta "Zer neska ederrak diren!" eta "Zeinen ongi ari diren orrazten!". Eta, etorri da, herrira, eta entregatu du bere anis pizar hori, eta, joan da apezarengana. Eta erran dio apezari:

- Badakizu gauza bat miraria... miragarria ikusi dudala?

Eta:

- Bai? Zer ikusi duzu?

Eta:

- Ikusi ditut laminak.

Eta:

- Laminak?

Eta:

- Bai, Arruzpiko maldan laminak. Eguzkitan orrazten ari ziren. Rubia-rubiak eta neska ederrak, bandeja urrezkoa zuten, orraziak ere bai, eta buruko

pintzak ere bai, denak urrezkoak zituzten.

Eta:

- Eta zer erran dizute?

Eta:

- Niri ez didate deusik erran.

- A, ez, e! Bueno, bueno. Nik arreglatuko dut asunto hori.

- Bai? Nola?

Sartu da, egun batean, hartu ditu kandela bedeinkatua, liburua eta... ur bedeinkatua, bedeinkatzeko, eta sartu da zulo hartan eta horrek bazuen irteera azpiz azpi goiko mendi kasko batera. Eta, apez hori sartu da gauaz haiek konjuratu behar dituela. Bazihoan, taka-taka-taka, eta bidean atera zaizkio eta erran diote:

- Hobe duk daramazkian erremintak eramatea, gainerakoan ez haiz hemendik aterako.

Apeza ikaratu eta handik atera eta ondoko egunean hil omen zen.

32. Lamina tximiniatik beheiti

- **Erref:** ARN-026/032
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:59:35. **Bukatu:** 01:01:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Pues hori, ge... pertsona bat aritzen zen arratsetan, ja bertzeak denak ohatzera joaten zirenean hori egiten, txapin haria, txapinak egiteko, orduan txapinak nola egiten ziren, horrekin, esto... ardien...

- Ilearekin.

- Ardia, bai. Ardiaren kentz... mozten zaien horrekin egiten zen ile... ilea, bueno, horrekin, egiten zuten txapin haria erraten zen. Eta hura egiten aritzen zen, eta, etor z... etortzen zitzaion beti esto...: "Zu... ekarri..." hori, gero hark idu... egiten zuten baratxuri zopa, gero ura hartu eta ohatzera joateko, eta:

- Ekarri baratxuri zopa! Ekarri baratxuri zopa!

Etortzen zitzaion beti arratseko hamabietan bat, lamina. Eta horrek baratxuri zopa. Eta baratxuri zopa ematen zion fregadera azpitik baratxuri zopa. Eta, klaro, ja aspertua hori, andre hori, izutzen, aldiro hori egiten, eta:

- A, bai! Gaur geldituko naiz ni!

Eta, gizona gelditu, arratsean, eta, sartu... etorri zaio lamina, eta:

- A! Zu ez piriri-piriri! -horrek fina egiten baitzuen- Zu pordok-pordok! - horrek zakar egiten- Zu pordok-pordok!

Eta, hori, isilik eta (...):

- Zu nor?

Eta, nola zen hori?...

- Ni, nihaur nire buru! -kontestatu zion hark- Ni nihaur nire buru!

Eta, gero:

- Ekarri baratxuri zopa!

Eta, joaten da eta hartzen du hori eta ra! Bota eta, erre, eta:

- Ai! Ai, ai! Ai, ai! -eta horrela-.

- Zer? -bertzeak- Zer? -galdetzen zion.

Eta:

- Ai, ai, ai!
Eta:
- Nork egin? Nork egin?
- Nihaurek nire buru! Nihaurek nire buru!
Klaro, nihaurek bere buru errana baitzuen, errea, eta nork nire buru. Eta hark egina.
- Hori amatxik kontatua? Zure amatxik?
- Hori gure amatxik kontatzen zuen.

33. Urrezko ezpata

- **Erref:** ARN-026/033
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:01:45. **Bukatu:** 01:02:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Emakume bat, lamina horietakoa pues... familia izaten hasi da eta, partoa, eta, emakume bat bazen komadrona egiten zuena, orduan komadrona ezke... edozein emakume ziren, las más atrevidas erraten den bezala. Eta, "Ja! Honelako emakume komadrona ibiltzen da hor eta joan behar diagu, ea atenditzen digun guri".

Lamina hori, edo sorgin horiek joan dira, erran diote eta, bai, bai, joanen dela segituan. Eta, bueno, emanen diotela... rekonpentsa ona. Emanen diotela rekonpentsa hagitz ona. "Bale". Joan du (sic), ume hori hartu du, garbitu, moldatu, beztitu, eta, jarri dio eta, etxera abiatu dira, eman diote ezpata urrezko bat, ederra.

- Begira, zuk e... ez begiratu atzera, atzera begiratzen baduzu erdia kenduko dizugu.

Bazihoan eta bertzeak kristoren musikarekin atzetik eta... alegría ikaragarri, konpainteden. Eta, atean hanka bat sartu du eta, atean hanka bat sartu duen denboran bertzea kanpoan tori, tak! begiratu du gibelera eta tak! kendu diote ezpataren erdia.

34. Laminak konjuratu zituzten

- **Erref:** ARN-026/034
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:02:57. **Bukatu:** 01:03:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Lamina haiek mendira, e... Trinitatera bidali omen zituzten, konjuratu omen zituzten, erregu bat, linazi, lina... lihoaren hazia xehe-xehe-xehea baita- (...) eta erregu bat pues e... hogeita lau bat kilo edo horrela. Bada erreguko kaxa -lehenago erregua, erregu erdia, laka... gaitzerua eta laka ziren medidak. Orain kiloak eta... gramoak diren bezala-. Eta, apaiz batek hartu ditu e... erregua eta... linaz... liho hazi, eta, bedeinkazioa eman dio, eta kondenatu ditu Trinitateko mendira, han pikorrak hainbat urterako. Orain zenbat izango ziren! Eta geroztik ez omen dira agertu.

35. Animak

- **Erref:** ARN-026/035
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:03:48. **Bukatu:** 01:04:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Lamina haiek mendira, e... Trinitatera bidali omen zituzten, konjuratu omen zituzten, erregu bat, linazi, lina... lihoaren hazia xehe-xehe-xehea baita- (...) eta erregu bat pues e... hogeita lau bat kilo edo horrela. Bada erreguko kaxa -lehenago erregua, erregu erdia, laka... gaitzerua eta laka ziren medidak. Orain kiloak eta... gramoak diren bezala-. Eta, apaiz batek hartu ditu e... erregua eta... linaz... liho hazi, eta, bedeinkazioa eman dio, eta kondenatu ditu Trinitateko mendira, han pikorrak hainbat urterako. Orain zenbat izango ziren! Eta geroztik ez omen dira agertu.

36. Xort egunak

- **Erref:** ARN-026/036
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:04:42. **Bukatu:** 01:05:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Xort egunak egiten dira agostotik hasten dira, eta, agostotik kontatzen dira hamabi hilabete, agostotik aitzinera. Agosto kontatzen da... agostok berea, lehenbiziko eguna berea. Eta gero handik aitzinera ja zer eguraldi egiten duen. Eta orduan... orduan zein eguraldi ateratzen den, ondoko hilabeteetan hala segitzen du, ondoko hilabeteetan hala segitzen du.
- Eta hemen jende aunitzek badu fedea horretan edo...?
- Fedea hagitz handia, batzuek badute hagitz handia fedea. Bakarrik, begiratu behar da segun itsasoak zer jotzen duen, edo ez ea... haize hegoak jotzen duen, edo horrela... horri begiratzen diote aunitzek haizeak ea zein aldetatik jotzen duen. Astelehenetan... astelehenetan euria egiten baldin badu, aste guztirako euria. "Asteleheneko euria, aste guztirako euria".

37. Ogia erortzen bazen

- **Erref:** ARN-026/037
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 01:05:29. **Bukatu:** 01:06:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Ogia erortzen baldin bazitzaigun guri lurrera, handik hartu eta... beti musu eman eta uzten genuen mahaiaren gainean. Eta, paratzen zen beti ahuspezka ogia, ez e... goiti begira. Paratu beti ahuspezka. Eta nabala ere bai. Nabala ere paratzen balin bazen goiti begira, erraten zen Jaungoikoa... Jaungoikoa sufritzen zegoela, nabala goiti begira paratuz gero, nabala paratzeko beti zeharka.

- Eta ogia hasteko zer egin behar zen?

- Aitaren, eta gurutzea i... beno... ogiari gurutzea. Labanarekin gurutzea egin, eta musu eman, eta, ogia hautsi.

38. Zer erraten zieten haurrei suarekin jostetan aritzean

- **Erref:** ARN-026/038
- **Iraupena:** 0:00:19. **Hasi:** 01:06:01. **Bukatu:** 01:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta gero, zer esaten zaio haurrari suarekin aritzen baldin badira... hor?

- Suarekin aritzen zirelarik, horrela egurra hartu eta eskuarekin harat honat, harat honat edo tenazarekin brasa hartua, eta, horrela suari zirrikaka eta horrela ere... hasten zirenean hurrak, orduan erraten zen: "Ez ezazuela, utz ezazue brasa hori, ohatzean pixa egiten da bertzela".

39. Pazkotan dotrina galdetu

- **Erref:** ARN-026/039
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 01:06:20. **Bukatu:** 01:06:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Etorri da emakume bat txartel hartzera, orduan behar baitzen txartela Pazkoak egiteko; eta behar zen txartela eta apezak erran dio:

- Bai, bai, nik emanen dizut txartela baina dotrina pixka bat esan beharko didazu, erran beharko didazu dotrina pixka bat.

Eta:

- Bai, bai, erranen dizut. Lasai, lasai. Bai, jauna, bai. Bai, bai, dotrina hobekiago dakigu!

Eta:

- Bueno, erraten badidazu... nik galdetzen dudana kontestatzen badidazu emanen dizut txartela. Jesukristo non hil zen?

Eta:

- Ui, ama! Jesukristo hil al zen?! Ez gara mezatan izan!

40. Lapurra konfesatzera

- **Erref:** ARN-026/040
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:06:57. **Bukatu:** 01:08:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Ño! Gizajoa joan da bildotsa lapurtu behar duela eta, ateak itxiak, eta leihoak ere bai, rejarekin. Eta, bildotsa harrapatu du, eta, tiro egin, ez zen ateratzen raja ate hartatik. Ezin lapurtu eta utzi du bertan. "Yos!" Joan da konfesatzera eta, konfesatzera joan da eta:

- Eta zer, zazpigarren manamenduan zerbait lapurturik horrela?

Eta:

- Ez, Jauna, lapurturik ez, lapurturik ez.

- Intentzioa horrela?

Eta:

- Bai, intentzioa bai, intentzioa izan nuen bildotsa lapurtzeko.

- A, bai, e! A, igual-igual bekatua da hori. Hori ordaindu behar duzu.

Eta:

- Bai? Nola ordainduko dut bada?

Eta:

- A, hori niri duro bat ematen badidazu, barkatuta egongo da.

- Bueno, bueno. Zer egingo dugu bada?

(Eskua), atera du duroa eta, emakumeak konfesatzeko tokitik:

- Har ezazu. Tori.

- Ez, hortik ez, hortik ez, beste aldetik, hortik ezin dut hartu.

- A, redios! Nik ere atea ireki izan bazen, lapurtuko nuen bildotsa!

41. Ezkurrarrek mandoa nahi

- **Erref:** ARN-026/041
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:08:01. **Bukatu:** 01:09:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hori... Ezkurran izanen zen. Bi mutil izanen ziren baserriren batean bizi zirenak, eta omen zuten mando bat beren lanerako eta mando hura zerbait gisa hil izanen zitzaien eta ez zekiten mandoa zertatik etortzen zen, eta nahi zuten berriz mando baten jabe egin. Eta, han gizon bati galdetu zioten:

- Mandoak zer... nola etortzen dira mundura? Zergatik etortzen dira?

Eta, gizonak erran zien:

- Horiek arrautzatik.

Eta bertzeek sinetsi zuten. Ez ziren arrunt... ideia txarrekoak izanen gizagaixoak eta... gero:

- Eta non saltzen dira... mando arrautzak?

Eta:

- Horiek Iruñean -erran omen zien hark-.

Eta haiek dena sinetsi. Eta haiek bokadiloak hartuta eta joan omen ziren, Iruñera, eta, arropa tienda batean sartu eta han galdetuko zien zer nahi zuten eta:

- Mando arrautzak.

Eta:

- Gizon, ez, ez, hemen arropa tienda da eta hor bertze... tienda bat bada aitzinxeago, eta han harrapatuko duzue.

Eta, joan zen, fruteria batera bidali omen zuen. Han neskata bat eta, han e... ea ze... zer nahi zuten, eta:

- Mando arrautzak.

Eta, hark, hura... kalabaza handi bat eman omen zien, eta, haiek kontent harekin. Hura hartu eta pagatu zuten eta, gero bueltan, heldu zirelarik, ja herrira hurbilean, zera... mendi punta batean edo jarri izanen ziren bokadilo jaten, eta kalabaza hura ondoan utziz... utzi omen zuten eta kalabaza malda beheiti eskapatu. Eta beheko... errekan jo omen zuen arbola bat, eta, arbola jo zuelarik, ondotik erbia atera eta ondotik:

- Hara! Atera duk! Barrenean izanen zuan mandokumea!

Ondotik biek lasterka potx! Potx! Potx! Oihu egiten ziotelarik, eta erbiak martxa.

42. Sugeen ausikien kontra

- **Erref:** ARN-026/042
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 01:09:49. **Bukatu:** 01:10:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai, emakume batek egiten zuen sugeen errezoa. Ausiki egin eta... errezoa.

- Hori zer herritan? Hemen?

- Arantzan bertan, bai, Arantzan. Emakume bat zen. Eta sugeen errezo hori e... egiten zuena hura bakarra omen zen. Eta, inori ez ziola erakutsi... sugeen errezo hori erran zuten.

43. Gangarabilak

- **Erref:** ARN-026/043
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 01:10:10. **Bukatu:** 01:10:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- (Senarra) Bederatzi gatz pikor (...) eta gero kontatu goitik beheiti aldrebes, goitik hasi eta beheiti etorri (...): "Gangarabilak dira bederatzi, bederatzi zortzi, zortzi zazpi, zazpi sei, sei bortz, bortz lau, lau hiru, hiru bi, bi bat. Gangarabilak joaten... nire gangarabilak joaten dira suan zirt-zartz!". (...)
- Eta hori zen egin behar zen, anar... arnas batean dena bota...
- Asna... arnas batean, eta arnasa hartzen balin bazenuen, berriz harz... hasi behar zenuen. Hori arnasa bakarrean erran behar dute hori dena.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com